

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

William Lamport, benetako Zorro

ENRIQUE ALCIATI



PETCHARY



Ezkerrean, William Lamporten estatua Mexiko Hirian; eskuinean, Tyrone Power aktorea *The Mark of Zorro* (1940) filmean.

WEXFORD, IRLANDA, 1615. William Lamport pirata, soldadu, espioi, kortesano eta errebeldea jaio zen familia noble baten baitan. 13 urte zituela aitak Londresko eskola batean matrikulatu zuen, baina bertara joateko goleta bat hartu zuen eta, han, pirata izatea erabaki zuen. Aurrerago Irlandako armadan sartu zen eta, kapitain mailara iritsita, besteak beste, Nördlingenek (1634) eta Hondarribiko (1638) guduetan parte hartu zuen.

Espanian Frantziaren aurkako gerran aritu zen eta, egindako lanari esker, Felipe V.aren ministro Olivaresko konde-dukearen aholkulari izatera iritsi zen. Olivaresen gainbeherarekin bat Mexikora bidali zuten espioi, Mexikoko erregeordea Portugalgo matxinadaren alde ote zegoen iker zezan. Ezpatari trebea eta gonazale amorratua, etsiak berehala egin zituen kolonian; besteak beste, Cadereytako markesarekin, erregeorde ohiaren emaztearekin izan zituen harremanak. Hala, Inkisizioak Guillen Lombardo –izena espainiar-tua zuen ordurako– epaitu eta espetxeratu zuen, sorginkeria, konspirazioa eta adulterioa leporatuta. Zazpi urte

eman zituen barruan eta, bertan, Espainiako erregearen aurkako jarraera areagotu eta kolonien independentziaren aldeko mugimendua bultzatu zuen, hainbat indiarrekin eta afrikar jatorriko esklaboekin batera. 1650ean espetxetik ihes egitea lortu zuen eta, egun gutxitan, Inkisizioak berriro atxilotu baino lehen, independentziaren alde gerran aritzeko armadaxoa antolatu zuen. Beste bederatzi urte eman zituen espetxean, Inkisizioaren aurkako libeloak idazten, 1659ko azaroaren 19an sutan hiltzera kondenatu zuten arte.

1872an Vicente Riva Palacio idazle mexikarrak Lamporten bizitzari buruzko *Memorias de un impostor* nobela idatzi zuen. Bertan, “Z” sinboloa agertu zen lehenengoz Lamporti lotuta: idazleak ziza hitz hebrearra erabili zuen, irlandarrak borrokan zuen “distira zerutierra” deskribatzeko. 1919an, Johnston McCulley New Yorkeko kazetariak, *The curse of Capistrano* nobelan, Lamporten oinarritutako pertsonaia-ri Diego de la Vega izena ipini zion, eta Riva Pacioren “Z” hura *Zorro* ezizenaren marka bihurtu zuen.

Arrastoak

Nancy Wake espioi britainiarra hil da

NANCY WAKE (1912-2011) britainiarrentzat espioi lanetan aritu zen Bigarren Mundu Gerran. “Sagu zuria” ezizenez ezaguna –Gestapok ipini zion izen hori–, hasieran frantziar erresistentziaren mezulari jardun zuen, eta aurrerago Ian Garro kapitainaren ihes-unitatearekin bat egin zuen. Ehunka pertsona lagundu zien alemaniarrek okupatutako lurraldeetatik ihes egiten. Eta, horrenbestez, aliatuen bandoan ohore-domina gehien jasotako emakumea izan zen.

Bizitza arriskuan izan zuen gerra osoan; Gestapok bost milioi liberako saria ezarri zuen 1943an hura harrapatzea lortzen zuenarentzat. Baina Wake joan den abuztuaren 11n hil zen, 98 urte zituela.

